

gaz-teak




Getxo
bizi ezazu

Doako alea

370 zb.
www.getxo.eus

>> 2022ko Iraila



**GAZTEENTZAKO
IKASTAROAK
ETA JARDUERAK**

Nabarmen^{tzekoak}

- > Gazteria Zerbitzuak eta parte-hartzaileen familiek positiboki baloratu dituzte 2022ko hiri-udalekuak
- > Indarkeria matxistari aurrea hartzeko tailerra
- > Bi Hotz Elkartearen erakusketa



Indarkeria matxistari aurrea hartzeko tailerra

Udaleko Gazteria Zerbitzuak "Ez ukatu" goiburuko proiektuaren tailerren parte hartuko du. Lantegi horretan, indarkeria matxistari buruzko diskurtso ukatzaileen prebentzioa lantzen da, gazteengan pentsamendu kritikoa sortzeko eta gazteak aldaketarako eragile bihurtzeko.

Proiektua, INTERED gizarte-eraldaketarako lankidetzaren eta hezkuntza-arloko GGKEren "Orain Berdintasuna" kanpainaren barruan dago. Erakunde horrek 30 urteko lanaldia beteko du aurten, hezkuntzan, berdintasunean eta indarkeria matxisten prebentzioan zentratuta.

Tailerra 12 eta 25 urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta bi zati ditu: lehenengoan azaltzen da gezurrak eta gorroto-diskurtsoak zer diren, nola detektatzen den egia diren ala ez, eta kasu horietan zer egin behar den. Bigarrean, praktikoagoa da tailerra, eta bertan ziberaktibismo-ekintza bat egitea proposatzen da, aldaketa-eragile izaten hasteko. Romo Kultur Etxean (110+111 gela) egingo da tailerra, irailaren 23an (ostirala), 17:00etatik 20:00etara. Argibide gehiago Gazte Bulegoan (Tangora Etxea, Algorta etorb. 98. Tel.: 94 466 03 53 / 688 88 09 85).

Bi Hotz Elkartearen erakusketa ikusgai

Irailan eta urrian, *Itzaletik erdigunera: nerabeen ikuspegitik memoria kolektiboa eraikitzen pandemia garaian* goiburuko erakusketa bisitatu ahal izango da. Udaleko Gizarte Kohezioaren Aroak diruz lagundutako jarduerak dira. Erakusketa Fadura (irailaren 23tik 30era) eta Gobelako (urriaren 7tik 14ra) kiroldegietan ikusi ahal izango da. Ondoren, Algortako eta Romoko gaztelekuetara eramango dute.

Erakusketa infografia multzo batek osatzen du, eta Getxoko ikastetxe eta elkarteetan egindako sentsibilizazio-tailerretan egindako lana erakusten dute.

Tailer horiek "Bi Hotz" Elkarteak koordinatzen ditu, eta udalerriko gazteek pandemiaren garaia nola bizi izan zuten azaltzen dute. Halaber, udalerriarren barruan bakea eta memoria historikoa eraikitzeko aldaketa-eragile gisa gazteek duten zeregina islatzen du.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Iraila

- Hilak 3, larunbata:** EKINTZA: DANTZA
- Hilak 7, asteazkena:** ASANBLEA: URRIKO PROGRAMAZIOA
- Hilak 9, ostirala:** EKINTZA: MAHAI JOLASAK
- Hilak 13, asteartea:** ESKULANA: GILTZATAKOAK
- Hilak 15, osteguna:** SUKALDARITZA: ZIAZERBA-TORTILLA
- Hilak 17, larunbata:** IRTEERA: GORLIZKO ITSASARGIRA
- Hilak 21, asteazkena:** TAILERRA: MIMO
- Hilak 23, ostirala:** EKINTZA: SLACKLINE
- Hilak 27, asteartea:** TAILERRA: UPCICLYING
- Hilak 29, osteguna:** EKINTZA: PIN PON

GureGune gaztelekuak

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Iraila

- Hilak 2, ostirala:** ASANBLADA: URRIKO PROGRAMAKETA
- Hilak 7, asteazkena:** ESKULANA: SLIME
- Hilak 10, larunbata:** IRTEERA: EREAGAKO HONDARTZA
- Hilak 16, ostirala:** MASTER CHEF: BIZKOTXOA
- Hilak 17, larunbata:** IRTEERA: BOLINTXU
- Hilak 21, asteazkena:** JOLASA: XAKEA
- Hilak 23, ostirala:** MASTERCHEF: ENPANADILLAK
- Hilak 27, asteartea:** TONEOA: FUTBOLINA
- Hilak 30, ostirala:** EKINTZA: ANTZERKIA

GauEgun gaztelekuak



5 eta 12 urte bitarteko 117 adingabek parte hartu dute guztira

Gazteria Zerbitzuak eta parte-hartzaileen familiek positiboki baloratu dituzte 2022ko hiri-udalekuak

Udal Gazteria Zerbitzuak uztailan Andra Mari, Romo eta San Inazio eskoletan antolatu ziren hiriko udalekuaren garapenaren gainean balorazio positiboa egin du. Udal erakunde horrek adierazi duenez, jarduerak horren balorazio positiboa ere izan da bai udalekuek parte hartu duten pertsonen aldetik, bai horien familien aldetik, baita Eragintzaren aldetik ere, ekintza horiek antolatu dituen erakundeak. Irabazimorik gabeko esku-hartze sozialeko elkarteak da Eragintza, esperientzia handikoa, eta proiektu ugari garatzen ditu animazio soziokulturaren eta hezkuntza-aisialdiaren esparruan gauzatzen dituen esku-hartze programen esparruan.

Datuak

Aurten udal Gazteriaren Zerbitzuak antolatutako hiri-udalekuek 5 eta 12 urte bitarteko 117 haurrek hartu dute parte: 60 neskek izan dira eta 57 mutilak. Kolonia inklusiboak dira, eta baldintza bakarra adinarena eta Ge-

txoko udalerrikoa izatea da. Eskola bakoitzean bi talde sortu ziren: bata 5 eta 9 urte bitartekoa eta bestea 10 eta 12 urte bitartekoa, taldeetan parte hartzen dutenen adinarekin hainbesteko alderik egon ez zedin. Hainbat jarduerak eta irteera egin zituzten: naturara txangoak, Gamarrako igerilekuetara, Sopuerta Abenturara, Garaio eta Otxandiora, Gorlizko hondartzara..., non yinkanetan parte hartu zuten eta eskulana eta urarekin jolasak egin zituzten. Jarduera horiek guztiak haurrek naturarekin bat egin dezaten antolatzen dira, eta beren esperientzia aire zabalean dibertsifikatzeko, zuhaitzen, zuhaixken, loreen, soroen eta abarren artean. "Badakigu txikienez zatekin garrantzitsua den ingurumena errespetatzen eta baloratzen ikastea. Naturarekiko maitasunak mundu naturala zaintzera eta estimatzera eramango ditu, eta sentimendu horiek bat etorritik jokatzera, haiek babesten eta zaintzen lagunduz. Horretarako, animaliekin jolasak eta jarduerak ere egin ditugu, eta egun batzue-

tan lagundu diegu", adierazi dute antolatzaileek.

Udalekuak amaituta, Gazteria Zerbitzuak uste du jarduerak horretarako ezarritako helburuak lortu direla: lana eta familia bateragarri egitea, euskararen erabilera sustatzea, nesken eta mutilen garapen osasungarria, baloreetan eta bazterkeriarik gabeko jarreretan hezteak, kultura-artekotasuna sustatzea, parte-hartze aktiboa bultzatzea (udaleku hauetan, haurrak kontuan hartzen dira erabakiak hartzerakoan eta jolasak edo jarduerak aukeratzekoan), ingurumenarekiko jarrerak positiboak bultzatzea, lankidetzaren eta elkartasuna bultzatzea eta berdintasuna sustatzea, besteak beste. Hori guztia ondo pasatuz eta jolasak eta eskuzko jarduerak eta txangoak ginez.

Familiek oso positibotzat jo dute talde profesionalaren tratua, baita neska-mutikoek lagun berriak egiteko aukera ere. Udalekuek dagoen aniztasunak oso aberasgarri egiten ditu.

TAILERRAK ETA IKASTAROAK: URRIA-AZAROA

IKASTAROA	EGUNAK	ADINA	ORDUTEGIA	HIZKUNTZA	TOKIA
TXAKURRAK TREBATZEA	Azaroak 4 eta 11	18-30 urte	19:00-21:00	Gaztelera	Zehazteke
EZ GALDU LAN MUNDUAN	Urriak 21 (ostirala)	18-30 urte	18:00-20:00	Euskera	Zehazteke
ADIMEN EMOZIONALA	Azaroak 18 eta 25	14-17 urte	18:00-20:00	Euskera	Romoko Gaztelekuak

Informazioa eta izen-ematea doan eta zabalik, plazak agortu arte: Gazte Bulegoa (Tangora Etxea, Algorta etorb. 98. Tel.: 944 66 03 53 / 688 880 985). Ordutegia: 10:00-12:00h. eta 17:00-20:00h.; gaztebulegoa@getxo.eus (izena eta harremanetarako telefonoarekin batera egin nahi den ikastaroa edo tailerra adierazita).